


## ZERTAN GASTATU DA DIRUA 2011N?

- **Zerbitzu orokorrek** eraman dute zatirik handiena: **%27**, hain zuzen ere. Hemen sartzen dira Udaletxea martxan jarduteko behar den gastu guztia (langilegoa, materialak, argia, telefonoa, eta abar luze bat)
- Bigarrenez, **udalerriko azpiegiturek eta ekipamenduek** eramaten dute beste laurden bat (**% 26**): bideak, argiteria publikoa, kanposantua, eta abar. Aurten bideetan egin dira inbertsio garrantzitsuenetakoak, euriteek eragindako kalteak konpondu, san Kristobalen semaforoak ipini. Argiteria publikoa ere berrizatu da auzo batzuetan.
- **Kultura, euskara, kirola eta jaietan** aurrekontuaren **%16a** gastatu da.
- **Zarama bilketa zerbitzuak** aurrekontu osoaren %9ko kostea dauka: ez bakarrik zarama bilketa, baita papera, olio, ontziak eta arroparen bilketa ere, eta gainera birziklatea eta zabortegira eramatea.
- **Ongizate sailak** ere gastua dakar, **%6a**, hain zuzen ere. Hemen sartzen dira hirugarren adinekoentzako programak eta laguntzak, Busturialdeko Gizarte zerbitzuaren Mankomunitateari Udalak ordaintzen dion kuota, mediku kontsultaren gastuak eta abar.
- **Nekazaritza, basogintza eta turismoa sustatzeko** ekimenek (Udalak berak bultzatuta edo Urremendi elkartearen bitartez) **%5** suposatu dute.
- **Eskolaren eta haurreskolaren gastuak** (garbitasuna, argia, telefonoa, kalefakzioa eta abar) **% 4**koak izan dira
- **Hirigintza Plan Orokorra** idazteko lanek aurrekontuaren **%3** eraman dute, Aldundiak ahalik eta arinen itzuli behar duen dirua izanik.

2011ko gastuak (helburuen arabera)



San Kristobal.

- **Cultura, euskara, deporte y fiestas** han llevado el **16%** del presupuesto.
- La **recogida de basuras** supone el **9%** dentro del cual entra la recogida y reciclaje o deposito en vertedero del papel, aceite, envases, y ropa.
- El **área de bienestar** también tuvo su gasto, **6%** para programas de la tercera edad, servicios sociales de la mancomunidad de Busturialdea, consulta médica,... etc.
- Las acciones para impulsar el **sector agrícola, forestal, y el turismo** (por iniciativa propia o mediante Urremendi) supuso el **5%** del presupuesto.
- En **educación**, escuela y guardería se destino el **4%** para limpieza, luz, teléfono, calefacción, ...
- Finalmente el **Plan General** dispuso del **3%** a la espera de que la Diputación lo reembolse.

## NONDIK HARTZEN DU DIRUA BUSTURIKO UDALAK?

**2011ko aurrekontua bi miloi eurokoa izan da 2.170.756,69 €**

Aurrekontuaren **erdia** Bizkaiko Foru Aldundiak ematen dio, bizkaitar guztiok ordaintzen ditugun zergetatik dagokion zatia.

**%18 inguru udal zerga eta tasak dira** (ondasun higiezin, ibilgailuen gaineko zerga, zarama bilketa zerbitzuaren gaineko tasa, ...)

Beste diru iturri bat **dirulaguntzak** dira, hau da, beste erakunde batzuek Udalari ematen diotena, Udalak zerbitzuak eman edo inbertsioak egiteko. Hau aldakorra da, urte bakoitzean ze proiektu dauden eta dirulaguntza moten arabera. Gehienak Bizkaiko Foru Aldunditik eta Eusko Jaurlaritzatik etortzen dira, baina badira beste batzuk ere: Energiaren Euskal Erakundea, Espainiar Gobernua ... Adibidez, kultur eta kirol ekitaldiak aurrera eramateko euskara planak, etab

**Diruz lagundutako inbertsioen artean, argiteriaren berrikuntza, zaramontzi berriak, bideetako aterpeak edo euriek eragindako kalteen konponketak izan dira.**

### ¿De donde procede el presupuesto municipal?

El presupuesto de 2011 ha sido de 2 millones 2.170.756,69 €

Principalmente, la **mitad del presupuesto** proviene de la diputación foral, de la parte correspondiente a los impuestos pagados por el pueblo de Bizkaia.

El **18 % procede de los impuestos y tasas municipales**, de los bienes inmuebles, vehículos, tasa de basura,... etc.

Otra fuente es la de las **subvenciones, procedentes de otras instituciones**, para inversiones o servicios. Es cambiante en función de sus presupuestos y proyectos. Suelen proceder de Gobierno Vasco, Diputación, u otros entes como el de la energía, el gobierno de España,... etc. **Entre otros se encuentran los planes de Euskera, programas culturales, deportivos, reformas, o inversiones como la renovación de la iluminación, containeres nuevos, marquesinas, o imprevistos de emergencia.**

**Aurrekontu parte hartzailerak 2011-12**

**Herri Batzarra**

**Abenduak 23 Diciembre barikua-viernes 19:00 Udaletxean**

## ZER PROPOSATZEN DU UDAL GOBERNUAK 2012RAKO ?

Udal gobernuaren helburuak argi daude, eta horietariko asko udal aurrekontuan islatu behar dira. **Gure asmoa da garrantzi berezia ematea zerbitzu publikoari, kulturari, euskarari eta parte hartzeari.**

Bestalde, udal gobernuak **bilerak egin ditu herriko elkarteekin, eta haien iritzia entzunda abiatu da aurrekontua prestatzeko lanetan.**

**Krisi egoera** ezaguna denez, litekeena da 2012an 2011n baino diru-sarrera gutxiago edukitzea, eta honek baldintzatuko du gastuen aurrekontua ere, **ezin baita gastatu sartuko den dirua baino gehiago.**

### Hau da egiten dugun proposamena

#### € **Udal zerbitzuak hobetzeko xedez**

€ Egun **kanpoko enpresek burutzen dituzten lanak udalak zuzenean** egitea posiblea den aztertuko da

€ **Ordu estrak bukatzeko** antolakuntza jarriko da martxan

€ Behar diren **lanpostu berriak sortuko** dira

€ **Euskara arloa berebiziko lekua edukiko** du (euskara eskolak, euskara batzordea, administrazioa euskalduntzea, UEMA ...)

€ **Nazioarteko elkartasuna** bermatuko da, Euskal Fondoaren bitartez

€ **Emakume arloko ekimenak**, besteak beste, hauek izango dira: indarkeriaren aurkako protokoloa zabaltzea, martxoak 8ko eta azaroak 25eko ekitaldiak, beldurraren mapa, ikerketak ...

€ **Informazioa eta parte hartzearen arloa** aparteko garrantzia dauka Udal Gobernuarentzat.

€ **Jaietarako aurrekontua %5ean jaitea** proposatu dugu: hasi behar da gauza gehiago auzolanean egiten, herriko jende gehiago parte hartzera animatu eta ezinbestekoak ez diren gastuak kendu (debaldeko pintxoak, adibidez)

€ **Kultura arloa**, azken urteotako ekimenak mantenduko dira, eta beste batzuk ere jarriko dira martxan. Kultur etxearen funtzionamendua eta egoera aztertuko da, eta aldaketak egingo dira behar izanez gero,

€ **Sozio-ekonomia arloa indartu nahi du Udalak**. Arlo honetatik gizarte zerbitzuak kudeatzen dira, baina baita nekazaritza, basogintza, merkataritza, daukagun industria apurra, turismoa eta abar ere, eta sektore horiek piztu nahi dira, beti ere Busturialde osoko sektoreekin batera.

€ **Ingurumenari** dagokiola, zaramaren kudeaketa gutxitu eta hobetu nahi du Udalak, bestelako bilketa sistemak aztertuz eta abar. Basoen kudeaketarako eta ibaien gestiorako ere aurrekontuaren zati bat eramango du.

€ **Memoria historikoak** ere protagonismo berezia izango du, **fusilamenduen 75garren urteurrena** izango da eta.

€ **Gizarte ongizate** arloan, gure **nagusien bizimoduaren eta bizi kalitateari buruzko azterketa** bat jarriko da abian.

€ **Gazteria arloan**, gazte eguna eta gazte plana antolatuko dira, baina **Udaletik zuzenean, ez orain arte bezala Urremendi elkartearen bitartez**

**... eta zuk nahi duzuna**

## ¿QUÉ PROPONE EL GOBIERNO MUNICIPAL PARA 2012?

Los objetivos están claros y deben reflejarse en el presupuesto. **Nuestro objetivo principal es dar peso a los servicios públicos, al euskera, a la cultura y la participación.**

Por otra parte, el inicio de estos presupuestos ha sido la **tanda de reuniones realizadas con todos los grupos del pueblo para recoger sus propuestas.**

Debido a la situación de **crisis** hay que prever una disminución de entradas por ello el gasto debe ser adecuado, **no se puede gastar más de lo que se ingresa.**

### La propuesta que realizamos es la siguiente

#### € **Mejorar el servicio público:**

€ Analizar la posibilidad de **recuperar los trabajos que hoy en día realizan empresas externas**, para mejorar la calidad y reducir el costo, creando nuevos empleos.

€ Poner en marcha un plan para **erradicar las horas extras.**

€ **Crear los puestos de trabajo** necesarios.

€ El **euskara mantendrá su importancia** (clases, comisión, UEMA, administración, ...)

€ **Solidaridad internacional** mediante Euskal Fondoa.

€ **Acciones del Área de la mujer**; extender el protocolo contra la violencia, 8 de marzo, 25 de noviembre, mapa del miedo, estudios,...

€ **Participación e información** deberá tener su lugar ya que este aspecto clave del programa.

€ **fiestas** proponemos **bajar un 5%**, para impulsar Auzolan, impulsar la participación, y eliminar gastos innecesarios (pinchos gratis, ...)

€ En **cultura** mantenemos el **anterior presupuesto** para continuar con los programas exitosos e impulsar nuevos, así por ejemplo una readecuación de las infraestructuras.

€ El **Área de socio-economía se refuerza**. Garantizando los servicios sociales, e impulsando los sectores económicos ( agricultura, forestal, comercial, industria, Turismo, ...) en acuerdo con el impulso comarcal.

€ Respecto al **medio ambiente**, se prevé un gasto importante en la gestión de residuos urbanos, analizar su reducción, nuevas políticas,... Ha esto hay que añadir la continuidad del plan forestal, gestión de ríos,...

€ En el 2012 **la memoria histórica deberá tener un protagonismo claro**, ya que es el **75 aniversario de los fusilamientos.**

€ Dentro de **Bienestar Social** se prevé un estudio de las condiciones **de vida de nuestr@s mayores.**

€ En el **Área joven** proponemos que el dinero que anteriormente gestionaba Urremendi lo gestionen directamente el Ayto. con la juventud de Busturia, **nuestro propio plan.**

€ **... y además lo que tu propongas.**